

Sohütan, 1996ko uztailaren 20an
Ageriko batzarra, E. Belapeyrenen omenez

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Peillen, Tx.
San Martin, J.
Zabaleta, P.

Arbelbide, X.
Badiola, R.
Baxok, E.
Larrarte, J.M.
Lizundia, J.L.
Pagola, R.M.
Zearreta, J.J.

razi du. Tamalez, esan du, haren heriotzagatik ezin izan da euskaltzain ohorezkoen mai-lara eraman.

Txomin Peillen euskaltzainak azaldu du xehekiro Hegiaphal jaunaren bizia eta lana, pastoralak zor diona azpimarratuz.

Jose A. Arana Martijak irakurri du ondoren bere txostena, aurren ere hil den Jose Basterretxea "Oskillaso" urgazleaz. Literaturan eta doinu eta azentuaren eremuan Basterretxeak burutu lana aipatu du bereziki hizlariak.

Ondoren, Jean Louis Davantek Athanase Belapeyrenen bizi-xehetasunen gainean hitz egin du. 1696an agerturiko haren *Catechima laburra* deritzana ere izan du Davant jaunak mintzagai, liburuaren euskara klasikoa goretsez.

Sohütako kiroldegian, 1996ko uztailaren 20an, arratsaldeko lauretan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzain oso eta urgazleak han zirela. J.M. Beguerie jaun auzapeza eta Zuberoako Sindikataren presidentea jarri da mahaian, J. Haritschelhar euskaltzainburuaren ondoan. Mahaian ziren orobat egungo hitzaldi-emaileak: Tx. Peillen, J.A. Arana, J.L. Davant eta Pello Agirre. Entzule anitz bertaratu dira ageriko batzarrerara, haien artean Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kultura diputatua; Koruko Aizarna Gipuzkoako Kultura diputatuak bere ezin etorria bidali du. Marcellin Hegiaphal zenaren senideak ere aretoan ziren.

Hitz batzuk egin ditu lehenik Beguerie jaunak frantsesez, Euskaltzaindiaren lana gorai patuz. Ondoren, J. Haritschelharrek Akademiaren esker ona agertu dio auzapezari guztien aitzinean, egungo bi batzarrek antolatzeko laguntza ederra eman baitu. Gero, Marcellin Hegiaphal Sohütako pastoral errejenta, berriki zendua, gogorazi

Azkenik, Pello Agirre irakasleak Belapeyreren euskara moldea azaldu du bere txostenean.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria